



<b>Ekipoa</b>	<b>Ultrairagazketa</b>
<b>Kodea</b>	A-1001
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- GSEen (gutzizko solido eseki) % 100 inguru atxiki dezake.</li> <li>- Ez da kimikorik edo malutatzailerik behar bereizketa egiteko.</li> <li>- Koipegabetze-bainuen bizitza luzatzea % 10etik % 20ra artean,koipeak eta olioakbereiziz. Lehen mailako koipegabetze-bainuetan 2.000 mg/l-ko koipe-kontzentrazioak lortzen dira, eta bigarren mailakoetan 25 mg/l-koak. Erreaktibo, koipegabetzaile, ur eta lohi gutxiago kontsumitzen da.</li> <li>- Ibilgailuak garbitzeko industrian, erabili gabeko detergenteek (% 20- 30) mintza igarotzen dute. Beraz, iragazitako ura beste garbiketa-ziklo batzuetan erabil daiteke.</li> </ul>
<b>Honetan datza:</b>	<p>Mintz bidezko bereizketa-teknika da, eta mintzaren alde bietako presio ezberdinagatik funtzionatzen du. Substantzia disolbagarriak eta molekula tamainako partikulek poroak zeharkatzen dituzte. Partikula esekiak, partikula koloidalak, bakterioak, birusak eta makromolekulak, berriz, mintzean atxikita geratzen dira. Ultrairagazketaren bidez, 0,001 µm-tik gorako partikulak atxikitzen dira (6 bareko presioarekin). Mintzak hainbat materialekin eraiki daitezke, normalean polimero organikoak (merkeagoak dira, baina mintz inorganikoak, esaterako, zeramika-mintzak, bezain erresistenteak ez). Mintz motaren arabera, pH ezberdinak eta 90 °C-ra arteko tenperaturak jasan daitezke.</p> <p>Teknika hori erabiltzen da partikula solidorik gabeko efluenta lortu nahi denean beste prozesu batzuk egin aurretik, adibidez, alderantzizko osmosia, edo kutsatzaile arriskutsuak deuseztatzea (besteak beste, metal astunak). Gainera, geroz eta gehiago, interesgarria da prebentzioaren eta berrerabiltzearen filosofiarekin kontzentratzeko metodo gisa. Teknika hori hautatuko da atxiki beharreko partikularen tamainaren arabera. Teknika honen aplikazioetako batzuk honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kutsatzaile degradagarri ez toxikoak deuseztatzea, adibidez, proteinak eta beste makromolekula batzuk. Adibidez: 1.000tik gorako pisu molekularra duten pinturak eta tintak.</li> <li>- Olio eta emultsio-ura bereiztea, esaterako, ebaketa-likidoa garbitzea.</li> <li>- Metal astunak bereiztea, konplexuak eratzearen edo hauspeatzearen ondoren.</li> <li>- Hustubideetako efluinteen tratamenduan erraz degradatu daitezkeen osagaiak bereiztea, ondoren tratamendu biologikoetan birziklatzeko.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Alderantzizko osmosiaren edo ioi-trukearen aurreko tratamendua.</li> <li>- Garbiketa-uretako lakak eta bernizak berreskuratzea.</li> <li>- Fotoerresistentziarako hondakin-ur alkalinoen tratamendua serieko inprimatzeen ekoizpenean.</li> </ul> <p>Hainbat formatako iragazkiak daude: forma kiribila, hodi forma, laua edo hariztatua izan dezakete, formen diametroaren arabera. Diametroa zenbat eta txikiagoa, atxikitako partikulak paketatzeko gaitasuna orduan eta handiagoa. Gainera, mintzak moduluka egiten dira –jarraituak edo etenak– edozein ahalmenetara egokitzeko. Sistema hori ziklo itxian erabil daiteke, etengabe, koipegabetze-bainuetarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Iragazki-garbiketa normalean mekanikoki gertatzen da, une batez alderantzikatuta fluxuaren norabidea, iragazte-ahalmena konstante egonik. Koipegabetze-bainuetako sistema itxietan garbiketa etengabe egiten da, iragazkiarekiko paraleloan dagoen fluxu baten bidez.</li> </ul>
<p><b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b></p>	<p>Kanpoan geratzen dira beren baimenetan zehaztutako gehieneko isurketa-balioak betetzeko asmoz teknologia hori ezartzeko eskatzen zaien edo ezartzen duten IPPC jarduerak.</p> <p>Aplikazio-sektoreetatik kanpo daude honako hauek: industria kimikoa (NACE 20) eta ura edangarri egiteko industria (NACE 41).</p> <p>Iragazketaren bidez 0,001 µm-tik gorako partikulak bereizi nahi direnean dira aplikatzekoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ehungintza (NACE 13).</li> <li>- Metalaren industria (NACE 24).</li> <li>- Tratamendu metalikoen industria (NACE 25).</li> <li>- Ibilgailuak garbitzeko industria (NACE 4520).</li> </ul> <p>Hondakinak tratatzeko industria (NACE 38).</p>